5458

AGINDUA, 2008ko irailaren 2koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Errenteriako udalerriko Gaztaño Zaharra 13/01 Esku-hartze Unitatea birgaitze integratuko area deklaratzeari buruzkoa.

Hiritu eta eraikitako ondarea birgaitzeko diren babestutako jarduerei buruzko Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren 17. artikuluak bi betekizun zehazten ditu multzo jakin bat birgaitze integratuko area deklaratzeko. Alde batetik, birgaitzeko plan berezia behin betiko onartzen duen erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta dagokion Lurralde Historikoko aldizkarian argitaratu beharra eta, bestetik, planaren eraginpean dauden udalek birgaitzeko hirigintza elkarte bat eratu beharra.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 2005eko uztailaren 12ko alean, Diputatuen Kontseiluaren 2005eko martxoaren 22ko Foru Agindua argitaratu zen. Agindu horren bidez, behin betiko onartu zen Errenteriako Gaztaño Zaharra 13/01 Esku-hartze Unitatearen Birgaitzeko Plan Bereziaren espedientea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 2005eko maiatzaren 10eko alean, Errenteriako Gaztaño Zaharra 13/01 Esku-hartze Unitatearen Birgaitzeko Plan Bereziaren espedientea behin betiko onartu zela zioen iragarkia argitaratu zen.

17.2 artikuluaren indarrez eta Errenteriako Udalak Birgaitze Integratuko Eremu horren kudeaketaren funtzionamenduari buruzko azalpen-memoria aurkeztu ondoren, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak espresuki onartu du ez dagoela birgaitzeko hirigintza elkartea eratu beharrik.

Horiek horrela, Gaztaño Zaharra 13/01 Esku-hartze Unitateari dagokionez, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan ezarritako betekizunak betetzen dira; beraz, aipatutako ingurua birgaitze integratuko area deklara daiteke.

Gai horretan erabilgarri diren legeak ikusita, honako hau

XEDATU DUT:

Errenteriako Gaztaño Zaharra 13/01 Esku-hartze Unitatea Birgaitze Integratuko Area deklaratzea. Birgaitzeko Plan Berezian zehaztutakoa da arearen mugaketa. Plana 2005eko martxoaren 22ko Diputatuen Kontseiluak onartu zuen eta agindu honen eranskinean agertzen da.

Agindu honen aurka, nahi izanez gero, eta hilabeteko epean, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal

5458

ORDEN de 2 de septiembre de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre declaración de la UI 13/01 Gaztaño Zaharra del municipio de Errenteria como Area de Rehabilitación Integrada.

El artículo 17 del Decreto del Gobierno Vasco 317/2002, de 30 de diciembre, sobre actuaciones protegidas de Rehabilitación del Patrimonio Urbanizado y Edificado, establece como requisitos para la declaración de un conjunto como Area de Rehabilitación Integrada, tanto la publicación del correspondiente acuerdo de aprobación definitiva del Plan Especial de Rehabilitación en el Boletín Oficial del País Vasco y en el del Territorio Histórico correspondiente, como la constitución de una Sociedad Urbanística de Rehabilitación por las Corporaciones Locales afectadas.

En el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 12 de julio de 2005 se publicó el Acuerdo del Consejo de Diputados de 22 de marzo de 2005 a través del cual se otorga la aprobación definitiva al expediente del Plan Especial de Rehabilitación de la UI 13/01 Gaztaño Zaharra de Errenteria.

En el Boletín Oficial del País Vasco de 10 de mayo de 2005 se publicó el anuncio relativo a la aprobación definitiva del Plan Especial de Rehabilitación de la UI 13/01 Gaztaño Zaharra de Errenteria.

En virtud del artículo 17.2 y previa presentación por el Ayuntamiento de Errenteria de una memoria explicativa del funcionamiento de la gestión de dicha Area de Rehabilitación Integrada, el Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, admite expresamente que no es precisa la constitución de una Sociedad Urbanística de Rehabilitación.

Se desprende de todo ello que concurren, en relación con la UI 13/01 Gaztaño Zaharra, los requisitos exigidos por el Decreto 317/2002, de 30 de diciembre, para proceder a la declaración de tal conjunto como Area de Rehabilitación Integrada.

Vista la legislación aplicable,

DISPONGO:

Declarar la UI 13/01 Gaztaño Zaharra del municipio de Errenteria como Area de Rehabilitación Integrada de acuerdo con la delimitación recogida en el Plan Especial de Rehabilitación del mismo, aprobado mediante Acuerdo del Consejo de Diputados de 22 de marzo de 2005 y que figura como plano anexo a la presente Orden.

Contra la presente Orden cabe interponer recurso de reposición, con carácter potestativo, en el plazo de un mes ante el Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales o bien directamente recurso contencioso-administrativo

izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 2a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la notificación de esta.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de septiembre de 2008.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.



BIRGAITZE INTEGRATUKO EREMUA

GAZTAÑO ZAHARRA U.I. 13/01

ERRENTERIA

AREA DE REHABILITACION INTEGRADA

BIRGAITZEKO PLAN BEREZIA

BEHIN BETIKO ONARPENA

B.O.P.V. 10.05.2005
B.O.G. 12.07.2005

PLAN ESPECIAL DE REHABILITACION

APROBACION DEFINITIVA